



HORIZONTE 2020 EUROPAKO IKERKETA ESPARRU PROGRAMAREN BIGARREN FASEAN, ZIENTZIAREN, TEKNOLOGIAREN ETA BERRIKUNTZAREN EUSKAL SAREKO DIREN AGENTEEEK IKERKETA PROIEKTUAK AURKEZ DITZATEN, DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKO LEGEZKOTASUN TXOSTENA

43/2019 LGAKZ – LT

I.- AURREKARIAK

Lehendakaritzaren Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak goian aipatutako dekretu proiektuari buruzko txostena eskatu du, Tramitaguneren bidez, 2019ko apirilaren 5ean.

Oraingo gure legezketasun-txosten honen oinarri da Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko Lehendakariaren 24/2016 Dekretuaren 6.1.h) artikulua, bai eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 14.1 c) artikulua ere.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa antolatzen duen ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1a) artikulua araberak, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokio egin beharreko txosten juridikoa egitea “*Xedapen orokorren proiektuak, erregelamenduz zehaztuko diren kasuetan eta irizpena egitea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari ez dagokionean*”. Honen harira, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.1 artikulua bete behar berbera ezartzen du.



II.- DEKRETU PROIEKTUAREN LEGALITATEZKO AZTERKETA

A) Xedea

Aztertutako dekretu proiektuak, Europako Batasunaren Horizonte 2020, Esparru Programaren barruan, Europako funtsak erakartzeko asmoz, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako erakundeen ikerketa bultzatzeko helburuarekin, erakunde hauei lagunduko dien diru-laguntzen esparru juridikoa arautzen du. Horretarako, aipatutako esparru-programaren lehenengo fasea gaindituta, bigarren fasera aurkezten diren erakundeen jarduera ez-ekonomikoa diruz lagundu nahi da.

B) Dekretu proiektuaren oinarri juridikoa

Apirilaren 17ko 1/2007 Dekretuak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua sortzen duenak, 3. artikuluan ezartzen duenez, kontseilua Lehendakaritzari atxikita dago. Ildo beretik jarraituz, apirilaren 8ko 49/2014 Dekretuak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua arautzen duenak, bere 3. artikuluan berbera aipatzen du.

Apirilaren 11ko 70/2017 Dekretua, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak lehen artikuluan, Lehendakaritzaren jardute eremuak arautzen ditu betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez. Lehendakaritzak, besteak beste, Jaurlaritzaren jarduna planifikatzeko eta koordinatzeko eginkizunetan parte hartzea du esleituta, bai eta Jaurlaritzaren programa eta plan estrategikoen bultzada eta jarraipena egitea ere.

Apirilaren 11ko 70/2017 Dekretuak, atxikipenei buruzko 4. artikuluan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua Lehendakaritzari atxikitzen dio, Kontseilu honen sorrera arautzen duen apirilaren 8ko 49/2014 Dekretuak arautzen duen moduan.

Aipatutako apirilaren 11ko 70/2017 Dekretuaren 6. artikulua xedatzen du Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiari dagokiola, Lehendakaritzari dagozkion eskumenen esparruan, eta Lehendakariaren menpean zuzen-zuzenean, Lehendakariari xedapen orokorren

eta erabakien proiektuak prestatu eta proposatzea, eta Jaurlaritzaren Lehendakartzaren egitekoen eta jardun-arloen eremuan beharrezko diren zirkularrak, instrukzioak eta egintzak ematea. Berari dagokio, halaber, Lehendakartzako diru-laguntzen deialdia egitea eta horiek ebaztea, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren eta Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren eskumen-arloari dagozkionak salbu.

C) Dekretu proiektua egiteko prozedura

Aztertuko dugun xedapenak dekretu forma duenez, dekretu proiektu honen izapidetzean, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritako prozedura jarraitu da, lege horretako 2. artikuluan ezarritakoaren aplikazio-eremuan baikaude.

Ilido horretatik, dekretu-proiektuarekin batera dokumentu hauek daude espedientean:

- Aurretiazko kontsulta publikoa, 39/2015 Legak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea ezartzen duenak, 133. artikuluan ezartzen duen moduan.
- 2/2019 Dekretua, Lehendakariarena, Otsailaren 19koa, dekretu proiektua egiteko prozedurari hasiera emateko agintzen duena.
- Lehendakartzarako idazkari nagusiak izenpetutako azalpen-memoria.
- Lehendakartzarako idazkari nagusiak izenpetutako memoria ekonomikoa.
- Lehendakariaren 3/2019 Dekretua, otsailaren 21ekoa alde aurretik, Horizonte 2020 Europako Ikerketa Esparru Programaren bigarren fasean, Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kide diren agenteen ikerketa-proiektuei dagokienez, lehia sustatzeko laguntzak arautzen dituena, onartzen duena.
- Generoaren araberako eraginari buruzko txostena.
- Lehendakartzaren Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak egindako txosten juridikoa.

- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Herri Administrazioetako Hizkuntza Normalkuntzako Zuzendaritzak egindako txostena.
- Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundearen txostena.
- Eusko Jaurlaritzako hainbat sail egindako alegazio idatziak (Osasun Saila, Ogasun eta Ekonomia Saila, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila eta Kultura eta Hizkuntza Politika Saila).

Dekretu proiektua egiteko orain arte jarraitu diren pausoak, bat datoz, gure iritziz, abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritako irizpide eta betekizunekin.

D) Dekretu proiektuaren egitura

Dekretu proiektu honek zioen azalpen bat, 18 artikulua, xedapen gehigarri bat eta azken xedapen bat ditu.

Hurrengo atalean proiektuaren edukiari buruzko legezkoatasun azterketa egingo dugu.

E) Dekretu proiektuaren edukiaren azterketa

Lehen azaldu dugunez, eta 1. artikuluan jasotzen den moduan, Dekretu proiektu honen xedea da erakunde onuradunen jarduera ez-ekonomikoa babesteko laguntza-programa bat arautzea, Europako Ikerketa Esparruko ikerketa-proiektuak H2020 programaren bigarren faseko deialdietara aurkez daitezkeen.

Hurrengo artikuluetan honako edukiak jorratzen dira: dirulaguntzen helburu izango diren proiektuen betebeharrak (2. artikulua); baliabide ekonomikoak, laguntzen izaera eta aplikatu beharreko araudia (3. artikulua); laguntzen onuradunek bete behar dituzten baldintzak (4. artikulua); diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta hauek burutzeko gehienezko epea (5. artikulua); diruz lagundu litezkeen gastuak (6. artikulua); laguntzaren intentsitatea eta muga (7. artikulua); deialdien araubidea (8. artikulua); eskabideak eta agiriak aurkezteko modua (9.

artikulua); eskabideak zuzentzeko epea eta prozedura (10. artikulua); .eskatzaileek ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiko arduradunak duen eskumena eta laguntzak emateko prozeduraren nolakotasuna (11. artikulua); ebazpena emateko prozedura eta ebazpena emateko edo ukatzeko ebazpena jakinarazteko prozedura (12. artikulua); emandako diru-laguntzaren zenbatekoa aldatzea (13. artikulua); ordainketa egiteko modua eta laguntzaren justifikazioa (14. artikulua); helburu bera duten bestelako laguntzak, aldi berean jasotzea edo pilatzea (15. artikulua); erakunde onuradunen betebeharrak (16. artikulua); diru laguntzak jasotzen dituzten erakundeek egin ditzaketen ez-betetzeak (17. artikulua); eta, azkenik, administrazioak laguntzak jasotzen dituzten erakundeen gain duten kontrolaren araubidea finkatzen da (18. artikulua).

Bukatzeko, dekretu-proiektuaren azken zatian, arauturiko diru-laguntzen gutxieneko izaerari buruzko argibideak ematen dituen xedapen gehigarri bat egoteaz gain, azken xedapen bat dago, honek dekretu-proiektua indarrean sartzen den eguna zehazten du.

Edukia aztertu ondoren, eta espedientea osatzen duten dokumentu guztiak kontutan harturik, honako hau adieraztea legezkoa dela uste dugu:

- Dekretu proiektuak legezko baldintzak betetzen dituela bai Euskal Autonomia Erkidegoan diru-laguntzen arloaren eta espedientea izapidetzaren araudiaren ikuspegitik, eta baita Europar Batasuneko araudiaren ikuspegitik ere. Beraz, bat gatoz Lehendakaritzako Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak egindako txosten juridikoarekin.

- Dekretu proiektuan erabiltzen den lege-teknika zuzena da, oro har, gure iritziz. Dena den, Ogasun eta Ekonomia Saileko Zerbitzu Zuzendaritzako alegazio idatzian iradokizun interesgarriak egiten dira lege-teknikaren inguruan, hori dela eta, dekretuaren azkeneko idazketan iradokizun horiek kontutan hartzeko gomendatzen dugu.

III. ONDORIOA

Aztertutako dekretu proiektua indarrean dagoen legeriarekin bat datorrela deritzogu.

Hau da nik neuk emandako txostena, eta zuzenbidean oinarritutako edozein txosten hoberen menpe jartzen dut.